

DIASPORAK NAZIOARTEKO HARREMANETAN: KOMUNIKAZIO ETA HARREMAN TRANSNAZIONALAK EUSKAL HERRIAREN ETA ESTATU BATUETAN DIREN EUSKALDUNEN ARTEAN

Tesiaren egilea: Maialen Goirizelaia Altuna

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saila

Tesi-zuzendaria: Leire Iturregi eta Leire Moure

Tesiaren laburpena:

XX. mendeko bigarren eta hirugarren hamarkadetan, hainbat lagun joan ziren Ameriketara, Europa atzean utzirik, etorkizun oparago baten bila. Herrialde berri batera joan eta bertako biztanle sentitu arren, ez dituzte inoiz euren identitatea eta jatorria ahaztu, eta oraindik ere loturak mantentzen dituzte sorterriarekin. Emigratu zuten horien artean, bazeuden euskaldunak ere.

Tesi-lan honetan, Ameriketako Estatu Batuetara joandako euskaldunek Euskal Herriarekin mantentzen duten harremana eta komunikazioa aztertzen da. Hasteko, eta testuinguruan kokatzeko, azterketa orokor bat egiten da: gainbegiratu hori balearen edo bakailaoaren bila Ternua eta Red Bay-ra joan ziren euskaldunekin hasten da; oinordekotza-sistema dela eta, euren etorkizuna Ameriketara bilatu zuten horiekin eta Estatu Batuetako mendebaldera artzain edo lorezain joan zirenekin jarraitzen du; Florida, Rhode Island eta Connecticut estatuetara pilotari joan zirenetatik pasatzen da; eta, azkenik, egun etorkizun profesional eta ekonomiko hobe baten bila doazenekin amaitzen da.

Tesi-lana aurrera eramateko teknika kuantitatibo eta kualitatiboak erabili dira. 435 inkesta eta 83 sakoneko elkarrizketa egin ditugu, eta horietatik lortu ditugun erantzunetatik ikusi ahal izan dugu Estatu Batuetan bizi diren euskal diasporako kide gehienak Bizkaikoak eta bigarren belaunaldikoak direla. Oraindik ere, nahiz eta bigarren edota hirugarren belaunaldikoak izan, euskal identitatea mantentzen dute, eta horretarako euskal janaria, euskal dantzak, euskara eta euskal jaialdiak dira, euren ustez, osagai garrantzitsuenak edota gehien praktikatzen dituztenak.

Komunikazioari dagokionez, bai euskal instituzioetatik zein euskal diasporako kideen eskutik, beti egon izan da harreman bat mantentzeko beharra eta gogoia, eta hainbat proiektu jarri dira martxan alde bietatik. Horien artean daude, kasurako eta beste askoren artean, diasporako kideen eskutik sorturiko udalekuak, euskal etxeak edota jaialdiak; eta instituzioen aldetik, Gaztemundu Programa, truke-programak,

Euskal Kolektibitateen Mundu Biltzarra edota EHU diaspora akademikoa. Harreman pertsonalagoei dagokienez, diasporako kideek familia eta lagunekin harremana dute, eta egunero komunikatzeko erabiltzen dituzten tresnen artean sare sozialak eta Whatsapp aplikazioa dira komunenak.

Bestalde, Estatu Batuetako euskaldunek Euskal Herriko egunerokotasuna eta albisteak jarraitzen dituzte eta horretarako bitarteko gisa sare sozialak, egunkari digitalak eta harreman interpertsonalak azpimarratzen dituzte.

Jaialdi euskal amerikarrak ere oso garrantzitsuak dira harremana eta komunikazioa indartzeko, identitatea mantentzeko era izateaz gain. Tesi-lan honetan, jaialdi horiek harreman publikoetako tresna bezala aurkezten eta ikertzen dira. Jaialdi horiek, gainera, inportanteak dira euskal amerikarrentzat, azken urteotan presente daude Euskal Herrian bizi diren euskaldunen agendetan ere. Asko dira jaialdi horietara gerturatzen direnak euskal diaspora ezagutzeko eta, bide batez, Estatu Batuetan zehar bidaia egiteko. Hasiara batean, jaialdi horiek komunitate bat sortu eta euskal kulturaz gozatu eta hau indartzeko kabi baziren ere, urteekin, beste era bateko helburuak ere lortu dituzte. Jaialdi hauei esker, Estatu Batuetan euskaldunen irudia indartu eta, askotan, hobetu egiten da; amerikar gizarteak euskal gizartea ezagutzeko aukera izango du, eta, zergatik ez, baita euskal produktuak, unibertsitateak eta enpresak ere. Horrek erakusten du ekimen kultural batetik abiatuz, beste mota bateko harremanak eta helburuak ere lor daitezkeela, hala nola ekonomikoak edota akademikoak, eta, ekimen horien bitartez, euskal diaspora diplomazia publikoko agente bihurtzen dela.

Amaitzeko, ikusi dugu, emigratzeko arrazoiaren eta garaiaren arabera, euskaldunek Estatu Batuetako leku desberdinak aukeratu dituztela, eta bi aldagai horiek eragina dutela jatorrizko herrialdearekin mantenduko duten komunikazioan, harremanean eta euskal identitatea sentitu eta materializatzeko eran ere. Ondorioz, euskal diasporari buruz ari garenean, diaspora bakar bati buruz hitz egin beharrean, diasporari buruz hitz egin beharko genuke; izan ere, nahiz eta jatorri bera izan, ezaugarri eta lehentasun desberdinak dituzten komunitateak sortu baitira.